// NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia | Iruña, 2003ko ekainaren 13a | 56. ZK.

## AURKIBIDEA

E SAILA:
**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**
—Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuak 2003ko ekainaren 2an deitutako manifestazioaren amaieran herritarren eta komunikabideetako ordezkarien aurka erakutsitako jarrerak errefusatzekoa. Batzorde Iraunkorrak onetsia (2. or.).

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**
—Nafarroako Parlamentuko 2002ko kontu orokorrei buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina (3. or.).
—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena, lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa. Gaindituen zerrenda (8. or.).

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuak 2003ko ekainaren 2an deitutako manifestazioaren amaieran herritarren eta komunikabideetako ordezkarien aurka erakutsitako jarrerak errefusatzekoa

*BATZORDE IRAUNKORRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorreko Mahaiak, 2003ko ekainaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

"1.- Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du indarkeriaren aurkako ekitaldia aprobetxatuz gaitzespen ekitaldi hartan zeuden herritarren ordezkari legitimoen eta komunikabideetako langileen aurka jo zutenen jarrera.

2.- Nafarroako Parlamentuak jokabide horiek demokraziaren aurkakoak direla salatzen du; izan ere, manifestazioaren helburutik urrun, ekitaldi publikoan probokazioa eragin eta giroa asaldatu nahi izan zuten.

3.- Nafarroako Parlamentuak indarkeriazko ekintza oro gaitzesten eta errefusatzen du, hura babesten duen argudio oro alde batera utzita, eta adierazten du errespetua eta tolerantzia bizikidetasun sozialaren oinarrizko printzipioak direla eta aniztasun politikoa demokraziaren funtsezko zutabea dela, guztiak izaki zaindu, babestu eta defendatu beharreko printzipioak."

Iruñean, 2003ko ekainaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**G Saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Nafarroako Parlamentuko 2002ko kontu orokorrei buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko ekainaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Nafarroako Parlamentuko 2002ko kontu orokorrei buruzko aholku emateko txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2003ko ekainaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Nafarroako Parlamentuko 2002ko kontu orokorrei buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Helburua eta norainokoa (3. or.).

**II.** Iritzia (3. or.).

**III.** Finantza egoera-orriak (4. or.).

1. taula. 2002ko aurrekontuak, dirusarrerak eta gastuak (4. or.).

2. taula. 2002-XII-31ko balantzea (5. or.).

3. taula. Emaitzen kontuak (7. or.).

### I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2003ko otsailean hartutako erabakia betez eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/2002 Foru Legean xedatuarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren 2002ko kontu orokorrei buruzko txostena –aholku ematekoa– egin dugu.

Egindako eskariari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren 2002ko kontu orokorrak arrazoizkoak ote diren aztertu dugu. Kontu orokorrak prestatzeko ardura Parlamentuarena izan da. Finantzen egoera orrien laburpena, berriz, txosten honen III. atalean jaso dugu.

Gure azterketa egitean, inguruabarrak kontuan harturik beharrezkoak iruditu zaizkigun auditoretza-prozedurak eta -arauak aplikatu ditugu.

### II. IRITZIA

Gure iritziz, kontu orokorrak behar bezala adierazten du 2002ko aurrekontuaren exekuzioa, Nafarroako Parlamentuaren 2002ko abenduaren 31ko ekonomia- eta ondare-egoera eta egun hartan bukatzen zen urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzak ere, aplikagarriak diren kontabilitate printzipio eta irizpideekin bat etorriz.

Parlamentuak 2002an zehar izan duen ekonomia-eta finantza-jarduera, berriz, legezkotasun printzipioaren araberakoa izan da.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2003ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## III. FINANTZA EGOERA-ORRIAK 2002-XII-31N

1. taula. 2002ko aurrekontuaren betetzea (eurotan)

### GASTUAK

| Deskribapena | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Ordaindutakoa | Ordaintzeke |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile gastuak | 2.289.555,60 | 57.814,00 | 2.347.370,01 | 2.286.079,50 | 2.285.887,90 | 191,60 |
| 2. Ondasun arrun. eta zer. gastuak | 1.953.974,48 | 200.945,00 | 2.154.919,40 | 1.807.403,80 | 1.665.241,27 | 142.162,53 |
| 4. Trasnferentzia arruntak | 1.960.068,76 | 0,00 | 1.960.068,76 | 1.851.997,07 | 1.851.997,07 | 0,00 |
| 6. Inbertsioak | 10.734.390,54 | 656.399,00 | 11.390.789,62 | 10.345.292,20 | 10.335.405,09 | 9.887,11 |
| 8. Finantza-aktiboak | 44.775,40 | 4.508,00 | 49.282,99 | 48.790,24 | 48.790,24 | 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboak | 3.005,06 | 0,00 | 3.005,06 | 1.513,75 | 1.513,75 | 0,00 |
| Gastuak, guztira | 16.985.769,84 | 919.666,00 | 17.905.435,84 | 16.341.076,56 | 16.188.835,32 | 152.241,24 |

### DIRUSARRERAK

| Deskribapena | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko eskubideak | Kobratutakoa | Kobratzeke |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak. | 7.512,64 | 0,00 | 7.512,64 | 8.951,01 | 8.951,01 | 0,00 |
| 4. Trasnferentzia arruntak | 6.054.698,11 | 0,00 | 6.054.698,11 | 6.054.698,00 | 6.054.698,00 | 0,00 |
| 5. Ondare bidezko dirusarreak | 122.305,96 | 23.566,00 | 145.871,96 | 179.144,04 | 179.144,04 | 0,00 |
| 7. Kapital transferentziak | 6.166.378,18 | 0,00 | 6.166.378,18 | 6.166.378,00 | 6.166.378,00 | 0,00 |
| 8. Finantza-aktiboak | 4.634.273,94 | 896.100,00 | 5.530.373,94 | 36.390,96 | 36.390,96 | 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboak | 601,01 | 0,00 | 601,01 | 3.639,60 | 3.639,60 | 0,00 |
| Dirusarrerak, guztira | 16.985.769,84 | 919.666,00 | 17.905.435,84 | 12.449.201,61 | 12.449.201,61 | 0,00 |

II. taula. 2002-XII-31ko balantzea (eurotan)

AKTIBOA

| | Kontzeptua | 2001/12/31, balantzea | 2002/12/31, balantzea | Aldaketak | Aldaketak, % |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ibilgetu materiala** | | **18.698.935,14** | **29.029.471,15** | **10.330.536,01** | **35,59** |
| 2020 | Eraikinak | 16.502.514,08 | 25.923.909,52 | 9.421.395,44 | 36,34 |
| 2030 | Makinak, instalazioak eta tresneria | 377.117,59 | 506.298,09 | 129.180,50 | 25,51 |
| 2040 | Garraiogailuak | 167.299,14 | 167.299,14 | 0,00 | 0,00 |
| 2050 | Altzariak eta tresnak | 655.310,52 | 1.383.474,06 | 728.163,54 | 52,63 |
| 2060 | Informazioa lantzeko ekipoak | 423.058,60 | 429.404,26 | 6.345,66 | 1,48 |
| 2080 | Bestelako ibilgetu material | 573.635,21 | 619.086,08 | 45.450,87 | 7,34 |
| **Ibilgetu inmateriala** | | **243.775,27** | **243.775,27** | **0,00** | **0,00** |
| 2100 | Azterlan eta proiektuak | 10.152,84 | 10.152,84 | 0,00 | 0,00 |
| 2150 | Aplikazio informatikoak | 233.622,43 | 233.622,43 | 0,00 | 0,00 |
| | Aplikatzeko dagoen ibilgetua | 0,00 | | | |
| **Finantza ibilgetua** | | **56.748,84** | **61.814,20** | **5.065,36** | **8,19** |
| 2540 | Epe luzeko maileguak. | 56.748,84 | 61.814,20 | 5.065,36 | 8,19 |
| **Aldi baterako inbert. finantz.** | | **6.100,27** | **13.434,19** | **7.333,92** | **54,59** |
| 5340 | Epe laburreko maileguak | 6.100,27 | 13.434,19 | 7.333,92 | 54,59 |
| **Zordunak.** | | **6.051,09** | **1.257,40** | **-4.793,69** | **-381,24** |
| 5610 | Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk | 6.051,09 | 1.257,40 | -4.793,69 | -381,24 |
| **Finantza kontuak** | | **9.755.460,69** | **1.804.354,04** | **-7.951.106,65** | **-440,66** |
| 5700 | Kutxa | 2.180,86 | 2.571,45 | 390,59 | 15,19 |
| 5710 | Finantza erakundeak | 9.752.591,29 | 1.793.016,03 | -7.959.575,26 | -443,92 |
| 5711 | Bankuak eta kreditu-erakundeak | 688,54 | 8.766,56 | 8.078,02 | 92,15 |
| AKTIBOA, GUZTIRA | | 28.767.071,31 | 31.154.106,25 | 2.387.034,94 | 7,66 |
| **ABALAK ETA BERMEAK** | | **448.015,87** | **479.064,64** | **31.048,77** | **6,48** |
| 0520 | Hartutako abalak | 448.015,87 | 479.064,64 | 31.048,77 | 6,48 |

PASIBOA

| Kontzeptua | | 2001/12/31, balantzea | 2002/12/31, balantzea | Aldaketak | Aldaketak, % |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ondarea** | | **19.005.474,43** | **29.346.283,86** | **10.340.809,43** | **35,24** |
| 1000 | Ondarea | 6.868.238,96 | 17.209.048,40 | 10.340.809,44 | 60,09 |
| 1070 | Adskribatutako ondarea | 12.137.235,46 | 12.137.235,46 | 0,00 | 0,00 |
| **Bestelako funts berekiak** | | **4.620.645,97** | **532.618,91** | **-4.088.027,06** | **-767,53** |
| 1291 | Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak | 4.619.188,54 | 531.161,47 | -4.088.027,07 | -769,64 |
| 1300 | Aplikatzeko dauden kontusailak | 1.457,44 | 1.457,44 | 0,00 | 0,00 |
| **Epe laburreko hartzekodunak** | | **73.614,97** | **152.241,24** | **78.626,27** | **51,65** |
| | Indardun ekitaldian aitorturiko betebeharretako hartzekodunak | 0,00 | | | |
| 4010 | Itxitako ekitaldian aitorturiko betebeharretako hartzekodunak | 73.614,97 | 152.241,24 | 78.626,27 | 51,65 |
| 5550 | Aplikatzeko dauden kontusailak | 0,00 | | | |
| **Zorrak entitate publikoekin** | | **5.064.846,83** | **1.118.347,27** | **-3.946.499,56** | **-352,89** |
| | Foru Ogasun Publikoa, kontzep. fiskalengatik | 0,00 | | | |
| 4760 | Foru Ogasun Publikoa, kredituen itzuketarengatik | 5.038.129,99 | 1.092.722,68 | -3.945.407,31 | -361,06 |
| 4770 | Gizarte Segurantza hartzekoduna | 26.716,83 | 25.624,59 | -1.092,24 | -4,26 |
| **Fidantzak eta gordailuak** | | **2.489,12** | **4.614,97** | **2.125,85** | **46,06** |
| 5200 | Epe laburrrean jasotako fidantzak | 2.489,12 | 4.614,97 | 2.125,85 | 46,06 |
| PASIBOA, GUZTIRA | | 28.767.071,31 | 31.154.106,25 | 2.387.034,94 | 7,66 |
| **ABALAK ETA BERMEAK** | | **448.015,87** | **479.064,64** | **31.048,77** | **6,48** |
| 0570 | Abal-emaileak | 448.015,87 | 479.064,64 | 31.048,77 | 6,48 |

III. taula. Emaitzen kontuak (eurotan)

2002ko emaitza

| | Zor | Hartzeko | |
|---|---|---|---|
| 2.981.016,06 | Langile gastuak | Salmentak | 3.476,00 |
| 1.110.299,68 | Lanak, hornidurak eta kanp. zerb. | Finantza-dirusarrerak | 179.144,04 |
| 2.167,56 | Tributuak | Kapital-transferentziak. | 6.166.378,00 |
| 1.851.997,07 | Transferentzia arruntak | Transferentzia arruntak | 6.054.698,00 |
| 0,03 | Alde negatiboak; euroaren borobilketa | Itxitako aurrekontuen etekin aldatua | 470,59 |
| 6.464.161,24 | Aurrezkia | Bestelako dirusarrerak | 5.475,01 |
| 12.409.641,64 | Zorrak, guztira | Hartzekoa, guztira | 12.409.641,64 |

Emaitza doitua

| | Zor | Hartzeko | |
|---|---|---|---|
| 6.464.161,24 | Ekonomi eta ondare emaitza | | |
| | | Ondarea (Inbertsio garbi aktibatuak) | 4.830.003,66 |
| | | Ondarea (amaierako aktiboak-pasiboak aldaketa) | 10.273,43 |
| | | Ondarearen emaitza ekonomiko doitua | 1.623.884,15 |
| 6.464.161,24 | Zorrak, guztira | Hartzekoa, guztira | 6.464.161,24 |

Emaitzaren banaketa.

| | Zor | Hartzeko | |
|---|---|---|---|
| 1.623.884,15 | Ondarearen emaitza ekonomiko doitua | Foru Ogasun Publikoa, hartzekoduna. Itzulk. | 1.092.722,68 |
| | | Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak | 531.161,47 |
| 1.623.884,15 | Zorrak, guztira | Hartzekoa, guztira | 1.623.884,15 |

# Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena, lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa

## Gaindituen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko ekainaren 6an egindako bileran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat betetzeko –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketa bukatu da. Aipatu deialdia 2003ko martxoaren 3ko 27. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2003ko otsailaren 17ko 12. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ikusita gainditu duten izangaien zerrenda, epaimahai kalifikatzaileak igorrita, eta deialdiaren 7. oinarriarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Aipatu lehiaketa gainditu duten izangaien zerrendaren berri izan duela adieraztea. Zerrenda hori ondoan transkribatzen dena da:

| | |
|---|---|
| Mª del Mar Lainez Gil andrea | 48,06 puntu |
| Mª Jesús Gamboa Sábalo | 46,767 puntu |

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko ekainaren 9an

Lehendakari: José Luis Castejón Garrués

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 40,27 | euro |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 1,02 | » |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 1,20 | » |

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
NAFARROAKO PARLAMENTUA
«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Navas de Tolosa, 1
31002 IRUÑA

Inprimatzailea: ONA Industria Gráfica (Iruña). Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua